

3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK

ALDUNDIA - NEKAZARITZA ETA INGURUGIROA

1999-11-10eko Foru Agindua, hegoaldeko zuhaitz igela babesteko planari eta neurri osagarriari buruzkoa

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

NEKAZARITZA ETA INGURUGIRO

DEPARTAMENTUA

*1999ko azaroaren 10eko FORU AGINDUA, Hegoaldeko Zuhaitz Igela (**Hyla Meridionalis**) Kudea-tzeko Plana eta babesteko arau osagarriak onartzekoa.*

Ekainaren 30eko 16/1994 Legeak, Euskal Herriko Natura Babestekoak, baso eta itsasoko fauna eta floran Arriskuan dauden Espezieen Katalogoa sortzea xedatu zuen, neurri babesgarri berezien beharra duten espezie, azpiespezie edo populazioak hartan zerrendatu ahal izateko.

Katalogo hori zehatzago erregulatzeko Eusko Jaurlaritzak onartu zuen 167/1996 Dekretuak, uztailaren 9koak, besteak beste hegoaldeko zuhaitz igela (**Hyla meridionalis**) jaso zuen katalogoan, «iraungitzeko arriskuan» zeuden espezie, azpiespezie eta populazioen artean. Espezie hori katalogoan sartzeak zera dakar berarekin: Alde batetik ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 50.1 artikuluan aipatzen diren neurri babesgarriak aplikatu behar zaizkiola, eta, bestetik, espeziea Kudeatzeko Plana egin behar dela, hain zuzen ere espeziea arriskuan jartzen duten mehatxuak ezabatzeko, espeziearen populazioak errekuperatzeko, iraunarazteko eta egoki moldatzeko eta, halaber, haien habitat eta ingurumenak babesteko eta zaintzeko behar diren jarraibideak eta neurriak zehaztearren.

Hegoaldeko Zuhaitz Igela Kudeatzeko Plana idatzi ondoren, espeziea berez bizi den edo suspertzea nahiz errekuperatzea nahi den lurralde historikoetako foru erakundeei dagokie hori onartzea, uztailaren 9ko 167/1996 Dekretuaren 8.2 artikuluan dioen legez.

Horregatik guztiagatik, 67/1999 Foru Dekretuak, uztailaren 21ekoak, bere 12. artikuluan eta 72/1999 Foru Dekretuak, uztailaren 27koak, bere 8. eta 10. artikuluetan dioena betez,

XEDATZEN DUT

1. artikulua.

Onartzea Hegoaldeko Zuhaitz Igela (**Hyla meridionalis**) Gipuzkoan Kudeatzeko Plana, foru agindu honen eranskinean jasotzen dena.

2. artikulua.

Zuhaitz Igela Kudeatzeko Planean aurreikusitako edo hartatik eratorritako jarduerak Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuari dagozkiola erabakitzea. Kudeaketa Plana jarduera programen bitartez gauzatu ahal izango da, hartan jasotako aurreikuspenak zein epe eta lekutan bete behar diren antolatzearren.

3. artikulua.

Kudeaketa Plana oso-osorik aplikatuko da indarrean sartzen denetik espeziea «iraungitzeko arriskuan» daudenen katalogotik kanpo geratzen den arte. Espeziearen beraren edo haren bizi-ingurumenaren iraupen egoeran aldaketa nabarmenak gertatu eta antzematen badira, Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuak plana berraztertzea proposatu ahal izango du eta, horren ondorioz, planaren aplikazio eremua eta helburu orokorrak eta, halaber, helburuok betetzeko jarraibide eta neurri zehatzak definituko dira

ostera. Edonola ere, lau urtez behin berrazterketa egingo da.

4. artikulua.

Zuhaitz Igela Kudeatzeko Planean aurreikusitako neurriak hark Gipuzkoan berez duen bizi-ingurumen osoan aplikatuko dira, Mendizorrotz mendiaren inguruan, alegia.

5. artikulua.

Planaren helburu nagusia da espezieak populazio egoera egonkorra izatea eta bere bizi-ingurumenean har dezakeen mendigunera ostera zabaltzea, hau da, Mendizorrotz mendira hedatzea, ahal dela, gainera, hiriguneetatik edo hiriguneeen inguruetatik alden dadin saiatuta. Horrela, espeziearen bizi-iraupena bermatuko da eta hirigune eta industriguneeen garapenak espeziari kaltea sortzea eragotziko da, oso gizatarturik dauden lekuetan, Igara auzoa kasu, espeziearen iraupena arriskuan egoten baita etengabe; zuhaitz igelak duen biziguneearen hedadura zabalduz eta aniztuz, gainera, espeziearen iraupena ez da, halabeharrez, gune jakin eta oso lokalizatuen iraupenaren menean egongo, gaur halaxe baitago.

6. artikulua.

Planaren helburua lortzeko, zuhaitz igela (**Hyla meridionalis**) berriz sartzeko programa bat egingo da bi fasetan (ikus eranskina).

7. artikulua.

Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuak Planaren jardueren jarraipena egingo du eta emaitzak aztertu eta bidezkoak diren aldaketak proposatuko ditu, bereziki zuhaitz igela berriz sartzeko programan aurreikusitako jardueri dagokienez.

8. artikulua.

Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuak behar den koordinazio bidea jarriko du bai espeziearen hedadura potentzialaren eremuko udalekin bai administrazioko beste organo batzuekin, kudeaketa planaren helburuak beteko direla bermatzeko neurriak hartzarren.

9. artikulua.

Foru agindu honek babesten duen espeziari dagokionez, ondoren aipatzen diren debeku guztiak egongo dira indarrean Gipuzkoako lurralde historiko osoan:

a) Hegoaldeko zuhaitz igelak, horien larbak eta arrautzak barne, baimenik gabe hiltzea, harrapatzea, jazartzea eta eragozteia edo traba egitea; baita, halaber, ugaltzen diren gunek suntsitzea.

b) Hegoaldeko zuhaitz igelak, biziak edo hilak, edukitzea, naturalizatzea, garraiatzea, saltzea, erakustea, inportatzea edo esportatzea, berariaz baimenduta ez bada.

10. artikulua.

Foru agindu honetan jasota dauden xedapenak urratzea, ekainaren 30eko 16/1994 Legeak, Euskal Herriko Natura Babestekoak, ezarritakoaren arabera zigortuko da, sortu litekeen erantzukizun penala, zibila edo bestelakoa eskatzea ere eragotzi gabe.

Amaierako Xedapenak.

Bakarra: Foru agindu hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean sartuko da indarrean.

Donostia, 1999ko azaroaren 10a.—Jon Mikel Murua Uribe-Etxeberria, Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuko Foru Diputatua.

(9655) (11156)

Eranskina

HEGOALDEKO ZUHAITZ-IGELA
(**Hyla meridionalis**, Boettger, 1874)

1. Espeziea.

1.1. Espeziearen ezaugarriak.

Mediterranio inguruko lurraldeetan bizi da. Iberiar penintsula osoan bada, bertako zona hezeetan ezik. Halere, iparraldeko

kostaldean bada, Euskal Herrian bakarrik izan arren. Zuhaitz igelaren populazioak, oro har, atzerabidean daude. Arazoak beren habitata galtzen ari delako edo aldatzen ari delako datozkie; aldaketa urak azidotu direlako eta biozidak daudelako gertatzen da.

1.1.1.EAeko zuhaitz igela.

Euskal Autonomia Erkidegoko zuhaitz igela bertako espeziea da, bertan iraunkorki bizi dena.

1.1.2.Hedadura.

—Espazioan:

Gipuzkoan, Mendizorrotzen bakarrik bizi da, bizi ingurune egokia duen toki jakinetan, itsas mailatik hasi eta 250 m gora bitartean. Orain, ugalketako bi alderdi ezagutzen ditugu: Igara eta Berio, eta horietako zenbait leku erabiltzen dituzte: Gurelesako urtegia, Pokopandegiko igerilekua, Zugastiederko igerilekua, Etumeko igerilekua, Gudamendi-Lasarmendiko igerilekua, Gudamendiko Dorretzeko igerilekua, Gudamendi hoteleko igerilekua, Nicol's hoteleko igerilekua eta Berioko igerilekua.

—Denboran:

Espezie hau etengabe bizi da bizileku dituen lurraldeetan.

1.1.3.Habitata.

Autonomia Erkidegoan hezeguneetan bizi da, inguruko urmael eta putzu iraunkorren eta errekatxoeren ertzetan diren landare ugari estalitako tokietan, batez ere, sasi, sahots, lezka eta karizeak eta beste formazio batzuk diren tokietan; zingira eta ihitokietan ere bizi da, beti ere, landare leku oparoetan. Ugalketaz 2 km urruntzera irits daiteke, erreka bazterretako landare zerrendei esker.

Ugalketarako habitat gisa, zingirako landarediz jantzitako urguneak erabiltzen ditu: Aldian aldiko putzuak, eta urmael eta urtegiak, baita oraindano aipatu izan ez den beste ingurune antropiko bat ere, hotel eta etxe partikularretako igerilekuak, alegia. Azken ingurune berri hori ez da espeziearentzat baliaigarria, ordea, ugalketak batere emaitzarik lortzen ez duelako, dela emeen arrautzek non itsatsi ez dutelako, dela larbek metamorfosia bukatu baino lehen hustutzen dituztelako.

1.2.Populazioen egoera.

1.2.1.Populazioaren tamaina.

Egindako kalkuluen arabera, zuhaitz igelaren populazioa 1.000-1.200koa da, eta honela banatua dago: 185/225 Berio eta 885/1.040 Igaran.

1.2.2.Populazioaren joera.

Mendizorrotzeko zuhaitz igelaren populazioa atzerabidean dago, gainbehera argi eta gogorrean, bai kopuruari, bai espezieak hartzen duen lur hedadurari dagokienez. Badira hamarkada batzuk atzerakada hori gertatzen ari dela, eta ondorioztat gaurko populazioaren geografi eremu murriztu ekarri du. 1970. urte aldera jakina zen bost populaziorik bizi zirela mendebaldeko muturrean, bat iparraldean, eta bi ekialdeko muturrean. Gaur egun mendebaldeko guneak eta gailurrekoa bukatu dira, iparraldekoan ia alerik ez dago, eta mendebaldeko bizigunean soilik dirau populazio batek. Mendizorrotzen barrena han eta hemen sakabanatuta dauden putzu txikietan, ustez ugalketarako egokiak diren, dakigunez, ez da ugalketarik izan 1998an.

1.3.Populazioen bilakaera baldintzatzen duten mehatxuak eta bestelako faktoreak.

Oro har, espeziearentzako mehatxuak habitata galtzetik edo aldatzetik datoz; habitataren aldaketa ura azidotzearen eta bioziden eraginez gertatzen da.

Arazo nagusia, espezie honek hartzen duen lurraldean, espezie ugaltzeko aproposak diren urguneak piskana-piskana kentzen ari direla da: Landaredia duten putzuak gero eta bakanagoak dira, iturri eta urburuetako ura hornidurarako hartzen da, eta aire zabalean ez da ugalketarako gai izan litekeen putzurik sortzen edo ur depositurik egiten. Gero eta ur gehiago erabiltzen da aisialdirako –igerilekuetan–, beraz, modu naturalean ura lortzeko aukera gutxi dagoela dirudi. Zentzu horretan, igel populazioak desagertu izanak ederki azaltzen du Mendizorrotzen dagoen arazo. Espezie hezeguneekin eta inguruko landarediarekin harreman estuan bizi da, eta kalte handia egiten diote haien aldaketek eta kanpoko faktore kutsatzaileek; oraindik irauten duen biziguneetan ere desagertzeko arriskua agerian da. Ur «ontziaren» egoera ere garrantzitsua da, izan ere, gehiegizko eutrofizazioa edo ur-landare gehiegiz betetzea, kaltegarria izan daiteke igel erabiltzeko.

Oraingo populazioarentzat bigarren arazo handia populazioaren kontzentrazioa da, bereziki populazio ugaltzailearen

kontzentrazioa. Izan ere, egoera horretan handiagoa da hondamendien eraginez espeziea galtzeko arriskua, nahiz hondamendi naturala, nahiz isurketaren bat edo beste ustekaberen bat gertatuz gero, eta berebiziko garrantzia izan dezake, baldin igelak ugaltzeko biltzen diren garaian gertatzen bada. Hain zuzen, hemen aipatu behar da Igaran 1998ko udan izandako azken uholdea suntsigarria izan zela ingurunerako; zehazki, uholde horren eraginez, Berioko putzuko eduki guztia urak eramanez, ondoren, jalkinez bete zen. Arazoa are larriagoa da Igaran, Mendizorroztzeko populazio ugaltzaile gehiena hartzen duen urtegiaren, Gurelesakoaren, ura biltzeko gaitasuna nabarmen murriztu baita. Horren eragina igarri da dagoeneko, ugaltzeko ordezkoko leku bila igerilekuetara jo baitute; baina ugalketak horietan ez du inolako emaitzarik lortzen. Beste arazo bat ere ekartzen du populazioaren kontzentrazioak, hain zuzen harrapaketaaren arriskua.

Beste maila batean baina gogoan hartzeko moduko eragina dute basoko suteek ere igel populazioetan, erreka eta urgune bazterretako landaredia suntsi dezaketelako edo, nolana ere, hosto artean dauden igel helduak, eta, horrenbestez, eragin kaltegarria dutelako igel populazioen bilakaeran.

Beste faktore batzuek ere badute eragina populazioan, baina oraindik ez da ondo neurtu. Horietako bat trafikoa da, batez ere ugalketa tokien inguruetakoa –Pokopandegi baserriko bidea–, izan ere, espezie honek ohitura du, beste anfibio batzuek bezala, gau epel euritsuetan asfalto gainera irteteko, berotasun, janari eta hidratazio errazaren bila, eta ibilgailuek sarri harrapatzen dituzte. Beste faktore bat putzuetako uren iturburuetan dauden baserrietako purinen eta hondakin uren isurketak dira, batez ere Aginagan eta Igaran (Gurelesa), horien artean Koskolo (Aginaga) eta Errotatxo (Igara) erreken inguruko baserrietakoak, eta baita askak ere, Berioko putzura ura dakarren Mugitegiko erreken kasua, adibidez. Horrelako isurketek asko aldatzen dute uraren kalitatea eta larben bideragarritasunari kalte egiten diote, putzua ugalketa lekturako alde batera uzteraino. Hirugarren faktorea espeziean edo espezieak erabiltzen dituen baliabideetan eragina duten harrapari berriak dira, karramarro gorri amerikarra eta zamoak, adibidez; horiek eragin handia izan dute Aginan ugaltzen zen populazioa desagertzeko.

Bestalde, oraindik gutxi kontuan izan den beste alderdi bat, inguruko biztanleek espezie hori etxe ondoan izateari eman dioten erantzuna da; oro har, nekazaritza ustialekuekin loturarik ez duten etxeetan bizi direnak, batez ere, kexu dira igel arrek ugalketa garaian eta tarteka beste batzuetan egiten dituzten kantu edo hotsez. Dirudienek, hezeguneetakoren bat –Orioko kanpinetako– horregatik lehertu dute, eta ez da dudarik igerileku askotako ontziaren urteko garbitasuna horregatik aurreratzen dutela, edo hegoaldeko zuhaitz igelak joan ez daitezela hustu egiten dutela.

2. Kudeaketa plana.

Kudeaketa planaren jomuga nagusia da da zuhaitz igela bizi den inguruaren industria zein hirigintza arloko garapenak igelengan duen ikaragarriko eragin hori saihestea, izan ere, hori baita gaur egun espezie horrentzako zuzeneko zein zeharkako arriskurik handiena, igelik gehienak industriak nagusi diren alderdi batean bizi baitira, hiri ingurunearen ondo-ondoan. Hori dela eta, plan honen helburu nagusia da espezie hori hiri inguruneetatik aldentzea eta berriz ere Mendizorroztz aldera eramatea. Hala bada, igelak ingurune naturalean bizi ahal izango dira berriz ere, inolako mugarik gabe, edo behintzat naturak berak ezarritako mugak bakarrik dituztela, eta aldi berean, Igara aldeko hiri eta industri garapenaren eta igelen bizi iraupenaren arteko gatazkak saihestuko dira, hor ez baitute aurrera egiteko inolako aukerarik.

Ez da batere bideragarria eta arrisku handikoa da, gainera, espezie horrentzat, orain arte bezala, erabat urbanizatuta dauden tokietan bakarrik ugaltzen jarraitzea; hori dela eta, berebiziko garrantzia du Mendizorroztz aldean igel horiek bizitzeko putzuak egokitzeak, espezieak bizitzeko behar dituen landare gune zabalak erabiliz.

Kudeaketa Planak zenbait neurri ezartzen ditu, besteak beste, zuhaitz igela Mendizorroztzen berriro sartzeko programaren barruan espeziea ugaltzeko putzu berriak egitea, esan bezala, horrek baitu lehentasuna une hauetan.

—Igela berriz sartzeko programa:

Planen espezie horrengan eta espeziea oro har bizi daitekeen lurralde zati horretan, bereziki Gurelesa aldean, hartuko diren neurriak zehazten dira, Gurelesako putzua garrantzi handikoa baita oraindik ere zuhaitz igelarentzat. Egin beharreko lan horiek bi fasetan egingo dira, aurrenekoan, gaur egun bizi den igel kopuruari eutsi eta bizitzeko jarrai dezan laguntzeko neurriak ezarriko dira eta, bigarrenean, berriz Mendizorroztz aldera eramateko neurriak jarriko dira indarrean.

—Ingurunean egingo den lana:

* I. Fasea.

Gaur egun dauden putzuak berreskuratu eta berriak egingo dira espezie hori Mendizorroztzen berehala sartzeko hasteko; aurreneko fase honetan putzuak mendiaren hegoaldeko magalean prestatuko dira, hala egiteko hainbat arrazoi daude eta: Ekologiaren aldetik egokiagoa da alderdi hori, etxebizitzetatik eta jendea bizi den ingurutik urrun dago eta gaur egun dauden igel multzoen jarraipena eta hartu-emanen bermatzen du. Putzuak honako baserri edo toki hauen ondoan egingo dira, tartean konpondu ezin diren arazorik ez badago, behintzat: Goienetxe fundazioa, Munotxabal baserria, Barrenetxeko zuloa, Baldazar baserria, Etxebeste baserria, Urteta, Egiolera baserria, Gurelesa (2 putzu) eta Artikula baserriaren ondoan. Fase honen bukaeran gaur egun Igaran espezie hori hazten

ari den putzuak utzi eta toki egokian, hiri eta industri guneetatik gero eta urrutiago, prestatutako putzu naturaletara eramango dira igelak. Hala, bizileku berri horrekin Gurelesako putzuan bizi den igel talderik handiena eta A-8 autobidearen ondoko ur banaketa lerroko mendi lepoan egongo dena hartu-emanetan egongo dira.

Gurelesako putzuei dagokienez, Iparlat aldetik hurbil, urez ondo hornitutako putzuak prestatuko ditugu, igel helduak hartzeko eta, batez ere, larbak eta arrautzak jasotzeko, ondoren Mendizorrotz inguruan sartzeko programan erabili ahal izateko. Bi putzu egingo ditugu, bata, 60 m²-koa, zuhaitzia dagoen magaleko zelai txiki batean eta, bestea, 250 m²-koa, zelaian dagoen ezpondaren oinean egingo dena eta 1,5 metroko zabalera ubide txiki bat izango duena. Horrez gain, lur gaineko bi ontzi handi ere prestatuko ditugu, 5 metroko luzera, 2 metroko zabalera eta metroko sakonera izango dutenak eta errunaldiak, larbak eta igel helduak erabiltzeko aukera emango dutenak eta igela sartzeko ekipamenduaren atal izango direnak. Instalazio horiek datorren martxorako abian izan behar dira, ugalketa sasoa datorrenean proposaturiko aldaketa horiek egiteko aukera izan dezagun. Poliki-poliki espeziearentzat prestatutako toki berri horiek zer-nolako arrakasta izan duten ikusi eta inguru hori ugaltzeko erabat baztertu dutela egiaztatu ondoren, ur putzu horiek beste gauza baterako erabili ahal izango dira.

* II.Fasea.

Bigarren fasean putzu berriak egokituko ditugu, aurreneko multzotik urrutiago dauden tokietan, iparraldetik kostara eta mendebaldetik Orio muga ditugula. Hala, espezie horrek Gipuzkoan garai batean hartzen zuen alde guztia hartuko dugu. Jarraipen programa bat ere jarriko dugu abian, emaitzak aztertu eta proposaturiko Kudeaketa Planaren egokitzat jotzen dituen aldaketak egingo dituena.

* Putzuak.

Putzuen ezaugarriak dagokienez, putzuak jarriko ditugun ingurune horiek espezieak bizi ziklo osoa egiteko baldintza egokiak bete beharko dituzte. 25 metro inguruko luzera eta 10 metroko zabalera izan behar dute eta gehienez ere 1,5 metroko sakonera. Dena dela, ingurune horretara egokitzen den beste neurri batzuetakoak ere izan daitezke. Putzuak elkarrengandik hurbil samar jarri behar dira, gehienez ere bata bestetik kilometro batera.

—Beste neurri batzuk:

Putzuen iraupena ziurtatu eta igel multzoen eta ugalketa tokien gaineko eragina ahalik eta gehien murrizteko, Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentua Donostia, Orio eta Usurbilgo udalekin jarriko da harremanetan, zuhaitz igelaren bizilekua udal horien barruan sartzeko baita, eta Kudeaketa Planaren berri emango die, hiri antolaketa udal arauetan plan horretan adierazitako neurri eta arauak sar ditzaten, bereziki, azpiegitura eta etxebizitza berriei dagokienez.

Beste alde batetik, zabalkunde kanpaina bat ere jarriko da abian, jendeari espezie horrek duen garrantzia, gaur egun bizi duen egoera zaila eta etorkizuna bermatzeko hartuko diren neurriak ezagutarazteko.

—Espezie horrekin egingo den lana:

Espeziea Mendizorrotzen sartzeko hasteko goian adierazitako tokietan sartzeko hasi behar da. Programa indarrean jartzeko honako hauek hartu beharko dira kontuan: Putzuen inguruan sahasak edo beste espezie batzuk egotea eta lur eta enbor pilak jartzea igelek neguan babesa izan dezaten. Putzu berri horietan igel helduak, gazteak, larbak eta arrautzak sartuko dira. Putzu horiek urez hornitzeko iturburuak edo hurbil dauden errekatxoak erabili beharko dira, beti ere, desbideratzeko adar batzuk eginda. Ondoko edo beste gaitz batzuk ez kutsatzeko (Declining Amphibian Populations Task Force, DAPTF) kontu handia jarri beharko da igel, arrautza edo larbekin ibiltzerakoan. Igela sartzeko programan erabiliko den materialak espezie hori ugaltzeko ezin den putzuetatik edo ugaltzeko aukera gutxi duen putzuetatik hartutakoa beharko du izan; hori dela eta, putzu berriak betetzeko arrautzak eta larbak hartzeko tokiak prestatuko dira.

Igela berriz sartzeko programan abian jartzen diren neurri eta jarduerak guztien jarraipena egin beharko da, hau da, alderdi guztiak kontrolatu beharko dira: Igelak hartzeko tokiak eta hartutako igelak, bildutako arrautzak eta larbak, garraioa eta putzuetan askatzeko uneak, metamorfosia, ia helduak diren igelen hedakuntza, helduen kolonizazioa, inguruetako landareak, putzuetako uraren kalitatea, arrain eta karramarroak sartzeko badira horrek izan dezakeen eragina, zuhaitz igelen beste esparru batzuetarako zabalkuntza eta abar.